

## ARTSALDEA

(García Lorca)

Artsalde euritsua urdiñarrez nekatu-  
rik,  
ta darrai bidez-bide,  
Zugatzak, igarturik.  
Nere gela, soilki.  
Irudi zarrak  
ta liburua ebaki gabe...

Tristura zurrutatzen da tresnetan  
eta nire ariman.

Bear bada

Izadiak eztu izango niretzako  
leiarrezko bularrik.

Ta min dut biotzaren aragian  
ta arimaren aragian.

Ta mintzatzean

nire itzak aizean gelditzen dira,  
kortxoak ur-gañean bezela.

Zure begiegaitik bakarrik  
sufritzen dut nik gaitz au.

Aintziñatiko tristura

ta etorriko diranak.

Artsalde euritsua urdiñarrez nekatu-  
rik,  
ta darrai bidez-bide.

## IZARREN ORDUA

(García Lorca)

Gauaren ixiltasun biribilla  
boslerrotzaren  
azkengabea.

Billutsik ateratzen naiz kalera,  
galdutako bertsoz eldurik.

Kirkerren kantuz  
beltza sakaildurik,  
argi-txakur ori du  
illik,

dunbotsez.  
Gogoak  
oartzen duan  
argi doñu ori.  
Milla ingumaren ezurrutsak  
lo daude nere barrutian.  
Lurraize erotuak gazte dabiltza  
erreka gañean.

*OTSALAR, euskeratzallea*

## ATLANTIDA AMES

*(J. Verdaguer)*

Itxasondoan bitxia  
diztiratsu dakus ;  
aunitz artu naian  
ustekabez ureratuz.

Gazteak, olatu artetik,  
ametsen lora atera du,  
maiteñoari ematean  
oñetan illik da erortu.

Zugatik, o aberri !, zure lezan  
beste bitxi bat artuko dut ;  
zer ajola neri bizia,  
eskeiñi al ba'dizut ?

*OTSALAR'ek euskeratua*